

ATHLETIC. Txetxu Rojok agur esan ondoren alemaniarra da lehen hautagaia talde zuri-gorria zuzentzeko

Javier Uriak akordioa lortu du Jupp Heynckesekin

Bi denboraldirako kontratua eskaini dio tekniko alemaniarri

Ramon Basaldua | BILBO

Jupp Heynckesek zuzenduko du Athletic hurrengo bi denboraldietan, datorren ekaineko hauteskundeetan Javier Uriak irabazten badu. Uriak akordioa adostu du entrenatzaile alemaniarrekin eta aurea hartu dio Fernando Lamikiz aurkariari entrenatzailearen izena emateko lasterketan.

Jupp Heynckes entrenatzaile ezaguna da Athleticen zaleentzat. Jose Julian Lertxundi Athleticen presidente zela iritsi zen talde zuri-gorrira, 1992-93 denboraldian, eta, bi urtez egon zen Bilbon. Lehenengo denboraldian zortzigarren sailkatu zuen taldea; eta bigarrean, UEFARA eraman zuen, sailkapeneko bosgarren postuan bukatu ondoren. Javier Uriak atzo

RAFA ALKORTA

Athleticeko jokalaria

«Entrenatzaile ona da. Eraitza onak lortu zituen eta jokoa ikusgarria zen»

adierazi zuenez, Jupp Heynckesen aldeko apustua egin du hasiera-hasieratik. Athleticen presidentetzarako hautagaia-



XOUSA SIMAL
Heynckes, 1992an, Lezaman.

ren iritziz, Heynckes entrenatzaile aproposa da Athletic zuzentzeko. «Gure ustez, gure taldea, gure herria eta harrobia lantzeko filosofia ezagutzen duen entrenatzailea behar du egungo Athleticen, eta Jupp Heynckesek ezaugarri horiek guztiak ditu. Ahalegin handiak egin ditugu Heynckesekin akordioa adosteko», azaldu zuen atzo Javier Uriak hautagaiak.

Jupp Heynckesek harrobiko jokalarien aldeko apustua egin zuen Athleticen eman zituen bi denboraldietan. Berak zelairatu zuen Julen Guerrero lehen mailan. Carlos Garcia, Oscar Vales, Aitor Karanka, Juanjo Valencia eta Jon Perez *Bolok* ere debuta egin zuten lehen mailan entrenatzaile alemaniarren eskutik. Genar Andrinua, Javier Uriaren hautagaitzako kidea, izan zen Athleticen kapitaina Heynckes entrenatzaile izan zenean. «Heynckesi buruzko oroitzapenak oso onak dira. Gizon serioa da eta bere exijentzi maila oso altua da. Gainera, joko estiloari dagokionez, guztiok gogoratzen dugu Athleticen joko ikusgarria egin zuela. Berriz diot oroitzapenak onak direla, jokoaz zein emaitzen arloan» adierazi zuen, atzo, Genar Andrinuak.

Rafa Alkortak urtebete eman zuen Jupp Heynckesekin, hurrengo denboraldian Real Madridera saldua izan aurretik. Alkortak berba onak izan zituen atzo Heynckesentzat: «Eraitza onak lortu zituen Athleticen. Gizon serioa da eta entrenatzaile ona izan zen Athleticentzat. Gainera, joko ikusgarria egiten genuen». Ikusi egin behar orain zein entrenatzaile proposatzen duen Fernando Lamikizek.

Errenta Renta 2000

Errenta eta Ondare Aitorpena

Maiatzaren 2tik ekainaren 29ra

RENTANET ekin tximistaren pare itzuliko dizugu

48 ordu barruan

Aurton ere RENTANET erabil zenezake zeure mesedetan. Hauxe besterik ez duzu egin behar: alde zuzeneko hitzordua eskatu (901 11 11 02 euskaraz / 901 11 11 01 gaztelaniaz) eta Erakustazokako 7. Pabiloira joan. Geuk prestatuko dizugu aitorpena, dohainik. Itzulketa jaso beharrekoa bada, 48 ordu barruan sartuko zaizu dirua zeure kontuan.

10 egun barruan

Edo nahiago baduzu, sistema honetara atxikitako kutxa eta bankuetako 300 bulego dituzu erabilgarri. Aitorpena dohainik prestatuko dizute. Itzulketa jaso beharrekoa bada, 10 eguneko epean izango duzu dirua zeure kontuan. Rentaneten modalitate biotan, aitorpenean ordaindu beharra ateratzen bada, azken egunera arte ez da kontuan zordunduko eta ordainketa zatikatu ahal izango duzu.

Edozein kontsulta egiteko, dei egiguzu:
901 50 3000
www.bizkaia.net

Bizkaiak hazten jarrai dezan



Bizkaiko Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Saila
Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Hacienda y Finanzas

LEHEN AROA

1992-93AN IRITSI ZEN. Jose Julian Lertxundik ekarri zuen Bilbora aurreko denboraldi bietan entrenatzailea aldatu behar izan ondoren. Javier Clemente eta Iñaki Saezekin izan ez zuen erregularitasuna eta lasaitasuna eman zion Heynckesek taldeari. Lehen denboraldian Athleticen zortzigarren bukatu zuen Ligan, eta hurrengoan, bosgarren sailkatu eta UEFARAko postua eskuratu zuen.

1994AN UTZI ZUEN ATHLETIC. Mahai ganean Athleticen eskaintza izan arren Jupp Heynckesek utzi egin zuen talde zuri-gorria eta Eintracht Frankfurt zuzendu zuen hurrengo denboraldian alemaniarra.